BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1478

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 11koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinen bidez deialdia egiten baita zehaztutako finkak okupatu aurretiko aktak jasotzeko; finkok 13,2 kV-ko linea elektrikoa, Gernika Kanala Kosta izenekoa, eta bere deribazioak, Ajangiz, Arratzu, Ea, Elantxobe, Ereño, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi eta Sukarrietako udalerrietan. Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. da horren jabea.

Erref.: L-7695 ASS-TLE.

Esp.: AT-H-2011-85.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2013ko irailaren 23ko Ebazpenaren bidez, aipatu instalazio elektrikoa herritarrentzat onuragarria dela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko deklaratzeak berekin dakar: eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen (1954ko abenduaren 17ko BOE) 52. artikuluarekin bat, lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eragindako eskubideen jabe eta titularrei deitzea, Ea, Elantxobe, Ibarrangelu, Kortezubi, Gautegiz-Arteaga eta Sukarrieta udaletxera, izan ere, bertan baitaude eragindako ondasunak. Bertan burutuko dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioarena.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordez dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Honekin batera doan zerrendan aditzera emandako egun eta orduan jasoko dira aktak, eta hori zitazio zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako argitalpenak ere egingo dira.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiko 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealen eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki baten bitartez Bilboko lurralde-bulegoan (Concha kalea 23-5), aldez aurretiko aktak jasotzeko izendatutako egunera arte.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 59.4 aurreikusitakoaren arabera eta Nahitaezko desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan aurreikusitakoaren arabera, iragarki honek ondoko hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasun eta interesen titular ezezagunei eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2014ko otsailaren 11.

Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

ERANSKINA

EA-KO UDALERRIA

Katastroko datuak			Jabea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursailak (Planoaren arabera)	Poligonoa	Lursaila				
307	9	23	Modesta Irusquieta Gavicaechevarria-ren jaraunsleak	Apirilaren 30a	09:00	Ea
310	9	26	Maria Begoña Irazabal Nachiondo	Apirilaren 30a	09:30	Ea
AL-18	3	91	Jesus Maria Azpiri Madariaga eta Blanca Duarte Barriomiron	Apirilaren 30a	10:00	Ea
AL-3	3	130	Argoitiagar, S.L.	Apirilaren 30a	10:30	Ea
AL-9	3	112	Maria Carmen eta Maria Begoña Artaraz Anduiza-ren jaraunsleak	Apirilaren 30a	11:00	Ea
AL-13	7	1-09	Maria Mercedes Basañez Angulo	Apirilaren 30a	11:30	Ea
AL-14	3	94				
AL-16	3	96				
AL-20	3	167				

ELANTXOBE-KO UDALERRIA

Katastroko datuak			Jabea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursailak (Planoaren arabera)	Poligonoa	Lursaila				
231	1	421	Alberto Maria Basterrechea Barandica	Apirilaren 30a	13:15	Elantxobe
LA-4	1	210	Elias Meaurio Rementeria-ren jaraunsleak	Apirilaren 30a	13:45	Elantxobe

IBARRANGELU-KO UDALERRIA

Katastroko datuak			Jabea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursailak (Planoaren arabera)	Poligonoa	Lursaila				
240	1	126	Antonio Lafuente Irazabal	Maiatzaren 5a	09:00	Ibarrangelu
247	1	6	Itziar Etxabe Urionabarrenechea	Maiatzaren 5a	09:30	Ibarrangelu
251	3	15	Aitor Ortiz de Pinedo Rojas	Maiatzaren 5a	10:00	Ibarrangelu
144	7	374	Urola Inmuebles, S.L. Hdos. de Gervasio Guezuraga Urizar	Maiatzaren 5a	10:30	Ibarrangelu
150	7	339	Marta, Cristina y Juan Antonio Landazabal Verde	Maiatzaren 5a	11:00	Ibarrangelu
LA-13	1	11	Mercada, S.A.	Maiatzaren 5a	11:30	Ibarrangelu
214	1	44				
151	7	340	Maria Isabel, Maria Victoria, Maria Luisa, Maria José eta Daniel Sarricolea Erausquin	Maiatzaren 5a	12:15	Ibarrangelu
159	8	183				
215	1	37	Nicola Aldamiz Bengoecheren jaraunsleak	Maiatzaren 5a	13:00	Ibarrangelu
LA-15	1	7	Elias Meaurio Rementeriaren jaraunsleak	Maiatzaren 5a	13:15	Ibarrangelu

GAUTEGIZ-ARTEAGA-KO UDALERRIA

Katastroko datuak			Jabea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursailak (Planoaren arabera)	Poligonoa	Lursaila				
84	2	30	Joseba Andoni Txurruka Argarate	Maiatzaren 7a	09:00	Gautegiz-Arteaga
MO-4	6	112	Orlando, Antonio, Angel eta Pedro Bollar Muniategui	Maiatzaren 7a	09:30	Gautegiz-Arteaga
MO-5	6	111				
ME-1	2	33	Felix Rioseco Dima	Maiatzaren 7a	10:15	Gautegiz-Arteaga
126	1	140	Maria Isabel, Maria Victoria, Maria Luisa, Maria José eta Daniel Sarricolea Erausquin	Maiatzaren 7a	10:45	Gautegiz-Arteaga
46	9	67	Ignacia Naveran Zatica-ren jaraunsleak	Maiatzaren 7a	11:15	Gautegiz-Arteaga
TR-23	5	59	Enrique Achavalen jaraunsleak	Maiatzaren 7a	11:45	Gautegiz-Arteaga
47	9	68	Aurelio Zuazoren jaraunsleak	Maiatzaren 7a	12:15	Gautegiz-Arteaga
48	9	79				
49	9	78				

KORTEZUBI-KO UDALERRIA

Katastroko datuak			Jabea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursailak (Planoaren arabera)	Poligonoa	Lursaila				
385	7	38	Julene Ortuzar Guerricagoitia	Maiatzaren 12a	09:00	Kortezubi
OM-2	8	93	Beñat Etxebarria Arabiourrutia eta Jose Ramon Etxebarria Iturbe	Maiatzaren 12a	09:30	Kortezubi

SUKARRIETA-KO UDALERRIA

Katastroko datuak			Jabea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursailak (Planoaren arabera)	Poligonoa	Lursaila				
117	2	9	Maria Begoña Goicoetxea Bustunduy	Maiatzaren 12a	11:00	Sukarrieta
87	11	6	Eloisa Goitisolo Muniategi	Maiatzaren 12a	11:30	Sukarrieta
88	11	1				